

YOUNG LEADERS SAN SEBASTIAN 2024 PROGRAMA DEIALDIA

1. HELBURUA ETA BALDINTZA OROKORRAK

Donostia Sustapenaren Young Leaders San Sebastian programak, gure hiria eraldatzeko azterketa eta ideia berritzaile eta jasangarriak planteatzen dituzten talentu donostiar gazteak identifikatu nahi ditu.

Programak, nazioarteko gazteekiko lotura, pentsamendu kritikoa garatzeko ikasketa eta gure hirian arazoak konpontzeko behar diren trebetasunak eta ezagutzak garatzeko aukera eman nahi du.

Gainera, Young Leaders Programme-k, Donostia ordezkatzeko aukera emango die gazteei, ekainaren 4tik 7ra Rotterdam-en ospatuko den Urban Future Congress-en barruan. Hiri jasangarrien Europako topaketarik handienak, gure hiriak nola hobetu ditzakegunaren erronkari heltzen dio.

Aukera paregabea izango da gazteentzat beraien garapen pertsonal eta profesionalean aurrera egiteko

Programaren edizio honetan, bi gazte hautatuko dira programan parte-hartzeko

Deialdi hau lege oinarri hauek arautuko dute (“Lege Oinarriak”) eta parte-hartzaile guztiak parte hartze hutsarekin, onartu egiten dituzte Lege Oinarriak, baita prozeduraren arauak ere.

Donostia Sustapenak beretzat gordetzen du edizio hau noiznahi bertan behera uzteko, aldatzeko edo ezeztatzeko eskubidea, parte-hartzaileei kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe.

2. PROPOSAMENEN BETEKIZUNAK

Parte hartzaileak hiria pertsona gaztearen ikuspuntutik eraldatu nahi duen proposamen bat aurkeztu beharko du, betiere berrikuntza, iraunkortasun eta kohesioaren irizpideei jarraikiz.

Horrela, proposamenek, dauden arazoak identifikatu beharko dituzte, alternatibek azterketa eta prospekzioa planteatuz, hirian eragin positiboa izan eta biztanleen ongizatea hobetzea helburu duelarik.

Adibide gisa, honako gai hauei lotutako proposamenak izan daitezke: jasangarritasuna, energia eraginkortasuna, gizarte-kohesioa, digitalizazioa, etxebizitza eskuratzeko aukerak, enplegua, eta abar.

3. HARTZAILEAK

Onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Eskaera aurkezteko unean 30 urtetik beherako pertsona izatea.

- Unibertsitate ikasketak, doktoretza ikasketak edo goi-mailako lanbide heziketa egiten edo bukatuta izatea.
- Donostiarekin lotura izatea. Honako baldintza hauetako bat betetzen dutenak joko dira Donostiarekin lotura duen pertsonatzat:
 - Donostian jaioa izatea.
 - Gutxienez azken 5 urteetan Donostian erroldatuta egotea, eskaera egiten den egunean.
 - Donostian dauden fakultate eta/edo unibertsitate eskola edo lanbide heziketako zentro batean titulazio ofizial bat lortu izana eta gutxienez azken urtean Donostian erroldatuta egotea, eskaera egiten den egunean.
- Kasu guztietan, C1 ingeles maila edo baliokidea edukitzea.

4. PROGRAMAREN KONTZEPTUAK

Aukeratuak izan diren gazteek, honako hau izango dute:

- Gastu guztiak barne direla, Rotterdamen ekainaren 4an egingo den **Young Leaders Programme 2024** programan parte hartzea. Bertan, Europako beste gazte batzuekin esperientziak trukatu eta prestakuntza-jardueretan, eztabaida-foroetan, erronkak lantzeko tailerretan edo networking-saioetan parte hartu ahal izango dute.
- Gastu guztiak barne direla, Rotterdamen ekainaren 5etik 7ra egingo den **Urban Future 2024** kongresurako sarbidea, hiri jasangarriei, aldaketaren gizarte-alderdiei eta hazkunde pertsonalari buruzko esperientzia inspiratzaileak ezagutu ahal izango dituztelarik.

Kasu bietan, Donostia Sustapenak ekitaldi bietara sartzeko kostua ordainduko du (1.000 € inguru), baita joan-etorriko bidaia eta ostatua ere (izapideak Donostia Sustapenak egingo ditu).

- Donostia Sustapenaren **laguntza integrala**:
 - Orientazioa eta aholkularitza indibidualizatua.
 - EKINNeN ostatu hartzeko aukera, "Talent Egoitza" programaren barruan
 - Donostia Sustapenaren prestakuntza eta azelerazio-programetan parte hartzeko lehentasunezko sarbidea.

5. ESKAERA ETA AURKEZTEKO EPEA.

Interesdunek eskabide orria eta beharrezko dokumentazio guztia fomentoss@donostia.eus helbidera bidali beharko dute.

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 22an hasiko da eta 2024ko apirilaren 15ean bukatuko da.

Donostia Sustapenak epea aldatu ahal izango du, baldin eta egokitzat jotzen badu.

Eskaera aurkezteak, deialdi honen oinarriak onartzen direla esan nahi du.

6. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Programan parte hartzeko, eskaera aurkeztu nahi duten pertsonek, honako dokumentazio hau bete eta aurkeztu beharko dute:

- **Eskaera Eranskina**
- **Memoria Eranskina.** Ekimenaren azalpena (gehienez, 3 orrialde), honako atal hauekin:
 - Errozkaren identifikazioa eta garapena
 - Egoeraren azterketa eta analisisa, irtenbide posibleak garatzeko alternatibak barne
 - Prozesuan aurrera egiteko proposatzen diren mugarrak (landa-lana, etab.)
 - Ekimenaren eragina hirian
 - Eskatzailearen **curriculum**a
 - **Motibazio gutuna ingelesez** (gehienez ere, orrialde bat)
- **NAN edo AIZren fotokopia**, alde bietakoa.
- **Donostiarekiko lotura** egiaztatzen duen **dokumentua** (errolda ziurtagiria, unibertsitate titulua edo baliokidea).
- Deialdi honen 3. artikuluan adierazitako baldintza frogatzen duen **ziurtagiria, ingeles hizkuntzarena**. Horretarako, aipatu maila egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko da edo Donostia Sustapenak ahozko eta idatzizko proba bat egin ahal izango du, eskatzailearen ezagutza maila jakiteko.

7. ZUZENKETA

Dokumentazio osoa aztertu ondoren eskaeraren atal batzuk bete gabe daudela edo dokumenturen bat erantsi ez dela ikusten bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio 5 egun balioduneko epean, zuzendu beharra komunikatzen denetik, eskaera bete edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; halaber, jakinaraziko zaio hori egin ezean eskaera baztertu egingo dela, bestelako izapiderik gabe, ondorioz, horri buruzko ebazpena emanez. Donostia Sustapenak eskatzaileak aurkeztutako agiriei eta/edo informazioari buruzko azalpenak eska ditzake.

8. BALORAZIOA EGITEKO PROZEDURAREN GARAPENA (EPAIMAHIA)

Administrazio betekizunen hasierako balorazioaren ostean, 4 hautagai hautatuko ditu Donostia Sustapenak. Ondoren, Ebaluazio Batzordeak lau hautagaitza hauek aztertuko ditu eta elkarrizketa pertsonalak egiteari ekingo dio.

Ebaluazio Batzordearen osaketarako, Donostia Sustapeneko langile eta deialdiaren xede diren arloetan adituak diren eragile laguntzaileen/enpresen laguntza ere izan lezake, ibilbide profesionalagatik eta gazteekin duten inplikazioagatik hautatuak..

9. BALORAZIO IRIZPIDEAK.

Ekimenak baloratzeko orduan kontuan hartu beharreko irizpideak:

- Proposamenaren diseinua eta kalitatea
- Proposamenaren izaera berritzailea

- Hirian eta herritarren ongizatean duen eragina
- Proposamenaren elkarlan izaera eta garapena
- Profil pertsonala/profesionala aurkeztutako ekimenera egokitzeko maila.

10. EBAZPENA

Epaimahaiaren ebazpena 2024ko apirilaren 26tik aurrera emango da aditzera, posta elektronikoz, eskaeran adierazitako helbidera.

Ebazpena eman ondoren, Donostia Sustapena harremanetan jarriko da aukeratu biekin lehenago aipatutako ekitaldi bietan parte hartzea kudeatzeko (ekitaldietan izena ematea, hegaldiak, ostatua eta abarrak erreserbatzea).

11. OINARRIEN INTERPRETAZIOA

Deialdian parte hartzeak esan nahi du parte hartzaileek onartzen dituztela deialdiaren oinarriak. Donostia Sustapenak beretzat gordetzen du oinarri hauei lotutako edozein kontu aldatzeko eskubidea, baldin eta kontu hori oinarriak interpretatzean sortutako gorabeheraren ondorioa bada.

12. AUKERATUTAKO PERTSONEN BETEBEHARRAK

Aukeratuak izandako gazteek:

- Rotterdamen egingo den Young Leaders Programme 2024an parte hartu beharko dute, ekainaren 4tik 7ra, Urban Futureren barruan.
- Donostia Sustapenaren edo hiriaren ordezkari izan beharko dute garrantzitsutzat jotzen diren ekitaldi eta biltzarretan, bai Espainian, bai nazioarteko mailan, betiere oinarri hauen jarduera esparruari badagokio.
- Ekitaldi bietan (*Young Leaders Programme* eta *Urban Future*) parte hartu bitartean bizitako esperientzia jasotzen duen txostena aurkeztuko dute.
- Irudi eskubideak laga beharko dituzte eta esanbidezko baimena eman beharko dute programaren baitan beren irudiak hartu, erreproduzitu eta hedabideetan zabaltzeko.

13. DATUAK BABESTEIA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da emandako datuak Donostia Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun moduan, eta Donostia Sustapena SAK informazioa kudeatuko duela tratamenduaren eragile moduan.

Tratamenduaren helburua *Young Leaders Programme* deialdian parte hartzea izapidetu eta kudeatzea da.

DBEOren 6.1.e) artikulua da tratamenduaren bidezketasunaren oinarria: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 6.b) artikulua, kontratu harremanari buruzkoa, oinarriak onartuz gero.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez eman beharko da, eta datu okerrak emateak edo daturik ez emateak eskabidea kudeatzea galaraziko du.

Ez da aurreikusten datuen komunikaziorik, ezta datuen nazioarteko transferentziarik ere, legeak hala agintzen ez badu.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu diren helburua betetzeko eta helburuaren eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko dira. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte hala dagokionean, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritako beste eskubide batzuk ere, Donostia Udaleko Udalinfo zerbitzuaren bitartez: Easo kalea 41, 20006 Donostia.

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldez aurretik, datuen babeserako Donostia ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango du: dbo@donostia.eus.